



ELKARTEAREN FITXA

Elkartearen izena: **MEDICUS MUNDI ARABA**

Esparrua :

| | | | |
|-----------------------------|-------------------------|--------------------------|----------------------------------|
| Komunitarioa | Gizarte bazterketa | Dibertsitate Funtzionala | Garapenaren aldeko lankidetzak |
| Ingurumena | Babes zibila | Soziosanitarioa | Emakumea eta Genero Berdintasuna |
| Giza eskubideak | Adikzioak/mendekotasuna | Osasuna | Kirola |
| Hezkuntza eta Prestakuntza | Animaliak babestea | Immigrazioa | Kultura |
| Gazteria eta denbora librea | Euskararen sustapena | Enpresa | |

Erakundearen azalpen laburra:

Medicus mundi Álava/Araba irabazi asmorik gabeko erakundea da, botere publikoetatik eta izaera ekonomiko, politiko edo erlijioso duten bestelako erakunde edo taldeetatik independentea da. Mundu bidezkoago baten alde lan egiten duen lagun talde batek osatua, helburu dugu egoera lazgarriak pairatzen dituzten herrien egoera sanitarioa eta humanitarioa hobetzea, baita txirotutako herrialdeetan gure ingurune hurbilenean gertatzen diren bidegabekeriak eta berdintasunik eza salatzea ere.

Medicus mundi Álava/Araba izateko arrazoia da giza eraldaketa, elkartasun kultura eta herritar konpromisoa sortzen laguntzea; hartara, mundu bidezko eta zuzen baten oinarriak ezarriz, pobrezia errotik desagerraraztea posible izango da, eta era berean, OSASUNA guztion esku egotea ahalbideratuko da, beti ere, giza eskubideak, genero berdintasuna eta pertsonen duintasuna ardatz.

Medicus mundi Álava/Araba-ren misioa lortzea bazkideen, boluntarioen eta laguntzaileen lan komunari esker egiten da, eta lagungarria da planetaren herririk eta komunitaterik txirotuenek giza garapena lortzeko egiten dituzten esfortzuak erdiesteko, batez ere, osasuna sustatzeko jardueretan indar bereziak jarritz.

Boluntarioen programa:

Pertsona boluntarioak **Sentsibilizazio eta Garapenaren aldeko Hezkuntza alorrerako:**

- Gure sentsibilizazio nahiz Garapenaren aldeko Hezkuntza ekintzak Arabako hainbat talderentzat dira; eta talde horiekin, herritarrek parte hartzeko prozesuak sustatzen saiatzen gara, gizartea eraldatze aldera eta gure elkarteak lehenesten dituen gaietan lan egite aldera: osasunerako eskubidea, ur eta saneamendu eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak, genero-berdintasuna, kontsumo arduratsua, eta bidezko merkataritza.

- Era berean, egoera sozialetara hurbiltzen saiatzen gara, eta halaber, saiatzen gara aztertzen egiturazko zer arrazoik eragiten dituzten giza eskubideen urraketak nahiz handitzen ari diren pobrezia-egoerak.
- Pertsona biziak eta sortzaileak behar ditugu, prestakuntza jasotzeko prest daudenak, hezkuntza eta sentsibilizazio tailerrak dinamizatzeko, bai ikastetxeetan, bai denbora libreko taldeetan, etab.

Egunak eta ordutegia:

- **Goizetan, astelehentik ostiralera, 09:30etik 13:30era;** eta behar denenan, Proiektu Batzordea arratsaldeetan biltzen da, **16:00etatik 18:00etara.**

Betebeharrak:

- Gizarte arazoek gaineko kezka izatea, eta konpromiso soziala giza eskubideen alde, pobreziaaren kontrako borrokan, genero-berdintasunaren alde, etab.
- 18 urtetik gorako edonor izan daiteke.
- Ez dago parte hartzeko konpromiso minimorik; zure denbora librearen arabera eta zenbat denboraz aritu nahi duzun. Baina, behin konpromisoa formalizatutakoan, bete egin beharko duzu.

Harremanetarako:

Ion Ander Areses

Los Isunza Kalea 9, 1^aEskuina

Ordutegia: Astelehentik Ostiralera 9:30- 14:30

ionander.areses@medicusmundi.es

945 288031